



Lide Oregi Arregi

*Bergara
Gipuzkoa (1935)*

Aurkibidea

Biografia



1935. urtean jaiotakoa Zubieta kalean. Aitajauna eta aita errementariak ziren. Bergarako lehenagoko bizimodua eta ohitura zaharrak oso ongi gogoratzen ditu. Bergarako udalak lanbide zaharren gainean argitaratutako "Burdina: errementariak eta perratzaileak" libururako hainbat elkarrizketa egin zituen Iñaki Aranarekin batera.

Zintak

BER-197

• **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2004-12-29
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. San Lorentzo auzoa eta bertako bizimodua

- **Erref**: BER-197/001
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>1935ean jaiotakoa da Zubieta kalean (Mugertzako aldaparen hasieran). Hurrengo etxea San Lorentzokoa zen. Beraiek bizimodua San Lorentzon egiten zuten. Umetan, bi kaleetako mutilen arteko harra-marrak gogoratzen ditu. Futbol talde bi: Madura eta Izarra. San Lorenzo eliza etxe berriak egiteko bota zen. Bertako jaiak oso ezagunak izaten ziren.</p>

Transkripzioa

-Ze urtetan jaixo ziñan?

-Bueno, ni milla bederatzirehun ta hogeta hamabostian jaio nitzan, eta... Zubitta kalia, Zubitta. Bueno, kalia zan Zubieta, baiña guk hemen Bergaran esaten jau Muertza, Muertza. Muertzako aldapian hasieran, e. Bai, kalia izatez Zubitta, baiña... han jaio giñan.

-Eta gero, esan zestazun, baiña, San Lorenzo auzuan edo...

-Klaro, baiña gero Zubitta hori gure etxiekin bukatzen zan ta hurrengo etxia zan San Lorenzo. Muertza gaiñeko beste etxe danak zien San Lorenzo. Eta, klaro, gure bizimodua itten giñuan guk San Lorentzon, auzo horretan, bai.

-Eta zelan gogoratzen dozu, ez dakit, Zubitta kalia?

-Bueno, adibidez, denpora haretan, batez be mutikuak Zubittakuak San Lorentzokuen kontra eukitzen zittuen bere zerak, e!

- A bai, e?

- Bai, bai, rifi-rafiak, bai, bai. Eta...

-Nesken artian...?

-Nesken artian ez, ez, ez dot gogoratzen. Baiña mutillak bai. Eta... futbol taldiak be San Lorentzokuak batzuk, Madura eukitzen zebe izena, eta bestiak, Zubittakuak, Izarra, beste ekipo bat. Eta hori bai, oso nabarmen izeten zan kale batekin bestera.

-Eta ze zian bi kale horrek bakarrik ala beste kale...?

-A bueno, beste kale batzutan be bai, baiña nere ume denporan ni gogoratzen naiz horrekin. Klaro, gero beste auzo batzuk San Antonio ta Altos Hornos ta horrek be bai.

-Euren artian [be egongo zian pikiak]?

-Eren artian, bai, bai egongo zien, baiña guk geuk hori bizi izaten giñuan.

-Eta kalia gero zelakua zan? Gogoratzen dozu pixkat ba eztaikit, dendarik

bazeuan?

-Bueno, ba, Zubitta edo Zubieta kalea zan e... hasi hemen Infernuko tabernian kontratik, hori sarrera hori daonetik, eta ba irteerara. Eta bukatzen zan, ba, gure etxian. Ta gure etxia zan ya aldapia hasitta Muertzarako lehenengo etxia. Eta, klaro, ez dakit zergatik zeuan bestia San Lorentzo eta guria Zubitta. Beharbada beste bi etxe horrek, bixen bittartian, edo hiru, ingo zittuen gero, eta klaro... Ez dakitt. Hor hori nik hola ezautu dot, hola ezautu dot.

-Eta zeoze zekan espeziala kale horrek?

-Kale horrek ? Ba, nik ez dakitt... Bai, auzo moduan zeukan elizatxo bat, San Lorentzo elizia. E? Bota zan oin urte ba... bastante urte dala, ta hor in zittuen etxe berrixak eta orduan e... eliza hori e... etxe batek... bueno, etxiak itteko bota zan eta etxe horreitako baten azpitan dao ermittia oin. E? Etxe berrixen baju batzutan ipiñi zan ermitita. Baiña lehen elizatxo bat zeuan. Eta, bueno, ba, horko jaixak-eta nahiko... ezaunak izeten zien.

-Eta zuk, orduan, ezautu zenduan eliza hori.

-Baaaai, bai, bai. Ezautu? bai, bai. Nik ez dakitt zenbat urte izengo dan eliza hori bota zala. Aber, hogeta... berrogei bat urte, holakon bat izengo da.

-Ez da hainbeste denpora.

-Ez da. Bai, berrogei bat urte gutxi gorabehera esango nuke nik.

-Bai, bai, bai.

-Bai.

2. Kalea nolakoa zen: abarkagilea; iturria lanean

- **Erref:** BER-197/002
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Kalea nolakoa zen; berezitasunak. Zubieta kalean abarketak egiten zituen Pío "Legazpi"k. Iturrira joaten ziren ur bila pitxerrarekin. "Hor konpon" futbol taldea. Benigno izeneko gizon batek taldearen arropak garbitu eta iturri ondoan zabaltzen zituen lehortzeko. Berak egiten zituen taldearen inguruko lan guztiak: zelaia zaindu, botikina eraman...

3. Abarkagilea lanean ikusten zuten

- **Erref:** BER-197/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Abarkagileak kalean bertan nola lan egiten zuen ikusten zuten. "Alpargatak kapillau".

4. Zubieta kaleko Arando taberna

- **Erref:** BER-197/004
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Zubietako iturria. Kalearen alde batean oso etxe gutxi zeuden. Arando taberna. Santa Marina egunean egiten ziren ospakizunak. Arando taberna Bergarako bigarren batzokia zela esaten zen. Jantzetxea ere bazen; inguruko auzoetan hildako bat zegoenean, bertara eramaten zen eta abadea bertara joaten zen gorpua jasotzera.</p>

5. San Lorentzo auzoko jaietan, erromeria

- **Erref:** BER-197/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Santa Marina eta San Pedroko jaiak nolakoak izaten ziren. Musika-bandak kalejira egiten zuen. Beste auzoetan ez zuten horrelakorik egiten. Sokamuturra; salbea... San Lorentzoko jaietan letania egiten zen; salbea; dantza. Erromeriak nolakoak.</p>

6. Santa Marina eta San Pedro parrokiak

- **Erref:** BER-197/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Kaleak Santa Marina eta San Pedro parrokien inguruan biltzen ziren.

7. Domu Santu Eguneko ohitura zaharrak

- **Erref:** BER-197/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Hilarriak. Domu Santu Egunean mantak; argizaiolak ipintzen ziren. Ohitura zaharrak.</p>

8. Zubieta kaleko dendak

- **Erref:** BER-197/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Zubieta kalean, bizargina ere bazegoen. Sebastián Aizpeurrutianeko denda; bolauak eta txokolatea ere egiten zituen. Cánovas del Castillo Santa Agedan hil zutenean, Sebastián sukaldari zegoen bertan.

9. Zubieta eta San Lorentzoko barberoak

- **Erref:** BER-197/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Ile-apaindegiak. Zubieta eta San Lorentzon barberoak.

10. San Lorentzo auzoko kale baserri batean gari-jotzea

- **Erref:** BER-197/010
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>San Lorentzo auzoan kale baserri bat zegoen, "Soldaukua". Garia eskuz jotzen zuten eta kaleko neska koskorrak laguntzera joaten ziren. Gero merienda ematen zieten. Artoa aletzera ere joaten ziren. Inguruko beste baserri batzuk: Moru, Moru torre eta Moru aldekoa. Gariaren inguruko lanak auzolanean egiten ziren.</p>

11. Gari-jotzea auzolanean egiten zen

- **Erref:** BER-197/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Gari-jotzea nolakoa izaten zen etxe inguruko kale-baserrian. Auzolanean nola egiten zuten. Orduko giroa. Arandonekoek ere abereak izaten zituzten. "Soldaukua" kale-baserria.</p>

12. Umetan erre kara bainatzera

- **Erref:** BER-197/012
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak

Laburpena:

Eskolan oporrak ematen zizkietenean, erre kara joaten ziren jolasean egitera. Argindar etxeak turbina bat zuen gertu eta han egiten zuten igerian. San Lorentzoko elizaren atzeko aldean, txinga bat zegoen. Mutilek bertatik egiten zuten salto. Agorrosin inguruan presa bat zegoen. Neskak bainatzeko erabiltzen zuten arropak nolakoak izaten ziren. Lehenengo bainujantzia noiz eta nork eraman zuen.

13. Eskolatik Debako hondartzara egindako irteera

- **Erref:** BER-197/013
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Eskolatik Debara joaten zirenean, bainujantziak alokatu egiten zituzten. Debako hondartzan soka bat zegoen. Lideren amak igeri egiten zekien (San Lorentzoko baserri batekoa zen eta Zerrajerara zihoan kanalean ikasia zuen). Oso neska gutxi bainatzen ziren errekan. Bertan egiten zituzten jolasak.

14. San Lorenzo auzoan eman diren aldaketak

- **Erref:** BER-197/014
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Zubieta kalea, San Lorenzo ingurua nola ikusten ditu gaur egun. San Lorenzo auzoko eliza, baserria.

15. Baserri girotik industria girora:

- **Erref:** BER-197/015
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara herriaren erdigunera joaten ziren. Jolasean egiteko, beraien auzoan geratzen ziren. Santa Marina ingurua nolakoa zen. Trenbidea. Santalaiz baserria. Orain industriagunea dena, garai batean soroak ziren. Taberna giroa; gizonak tertulian. San Lorenzo ingurua noiz hasi zen aldatzen.

16. Amama inude joan zen Palentziara

- **Erref:** BER-197/016
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Amama inude joan zen Palentziara. Garai batean ohikoa izaten zen emakumeak inude joatea.

Transkripzioa

-Esan zenduan amama iñude joan zala.

-A bai. Orduan ohittura haundixa zeuan itxuria daonez. Eta gure amama be Palenziara joan zan iñude. Nere aittan ama.

-Lekutan dago palenzia!

-Ba hori. Denpora haretan nik ez dakit nola, ze transporte edo nola joango zan.

-Baten baten bittartez?

-Hoixe ez dakitt, baiña han egon zan.

-Badakizu gutxi gorabehera zenbat urte?

-Zenbat urte ez dakitt, umia bularra emoten dan bittartian egongo zan. Gure aitta hazi zebeñ Uberako basarri baten.

-Orduan familixa askotan egongo zien.

-Bai, bai; asko, asko, asko, asko. Ze nere aman aitzia ta koiñetia ta be egon zien. Geruao harek.

-Hemen inguruan ala?

-Bilbon, harek Bilbon. Entzunda daukat nik. Nahiko normala izan bihar zeban ba hori, basarritik eta hori. Diru bat irabazten zala. Errialetan kontatzen zan orduan, nik ez dakit zenbat errial eta esaten zebeñ. Eta gero eukitzen zebeñ kontaktu bat eta bialtzen zotsen handik erropak eta gauzak eta.

-Eta iñude, besterik ezautu dozu, entzunda ba haura be iñude ibili zan eta.

-Bai, nik asko. Hemen bai-bai, neure tiak bi behintzet badakitt. Aman aitzia eta aman koiñetia be zela egon zien. Eta gure aman aitziaikin batera egon zan beste bat horko basarri batekua, bikixak itxuria zeuzken itxuria Bilbon etxe horretan, eta bi iñude Bergatik eruanda. Zeiñen bidez ez dakitt.

-Eta gero entzunda edo, bueltatzen zianian, zuk esan dozuna, erropa diferentia, pixka familixa onetara joaten zian eta han be pixkat bizimodu hobia zeken. Rta bueltatze hori pixkat zaila ingo jakuen...

-Hoixe ez dakitt. Nik askotan pentsau izen dot, eta horren gizonak bittartian zer eitten zebeñ hemen, ez. Baiña!, hori ez dot entzun sekula. Holako gauzak lehen ez zien kontatzen, beste zer horrek, eta klaro, ez dakitt. Ez dakitt nola izango zan. Baiña asuntua zan diru batzuk irabaztia; urtebete edo ingo zebeñ edo urte eta erdi. Ez dakit zenbat ingo zebeñ, eta diruakin etortzen ziela; eta sekulako uniformiaikin ibiltzen ziela, bai. Oin ikusten dittuun moruan iñudiak eta artzaiak Donostian. Holako belarritako ta holako moñotxuak. Hori dana, hola jantzitta ta dana.

-Herrixan imajinatzen dot puxkat destakautxuak geratuko ziala.

-Ez dakitt.

-Eta “ama de cría” joandakorik edo?

-“Ama de cría” horretzek zien, iñudiak.

-Bardiña zan, ez?

-Bai, klaro. Joaten zien bularra emotera hango ume bati.

-Eta zaintze lanak, iñudez aparte, umia zaintzera ta.

-Nik uste dot umia egoten zala, nik entzun doten gauzegaittik eta. Neuk, ez dakitt, esplikau ez doste ein sekula; uste dot umian kargua eukitzen zebala iñudiak. Beste lanik ez dot uste itten zebeñik.

-Behin bularra emutiai lagatakuan...

-...takuan etxera. Kobratzen zebeñ eta etxera.

-Ez zebeñ jarraitzen ume zaintzaile moduan...

-Ez, ez ez. Izeten zan epoka hori, itxuria bakarrik. Oso kuriosua. Denpora baten diru bat irabaztera.

-Gaiñera orduan erderarik be ez eban jakingo...

-Bueno... Ez, erdera asko ez zebeñ jakingo. Beharbada bapez. Hantxe igual

17. Teilerian lan egiteko langileak Arabatik ekartzen zituzten

- **Erref:** BER-197/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Amaren baserrian teileria zuten. Aitak langileak Arabatik ekartzen zituen etxeko umeak erdaraz ikastearren.

18. San Lorenzo auzoko baserriak

- **Erref:** BER-197/018
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:47:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Amak josteko esku ona. Baserrian teileria zuten. Zerrajeraren atzealdean zegoen. Auzoko beste baserri batzuk; toponimia. Baserriko seme-alaben eginkizunak.

19. Ama eskolara neguan joaten zen, baserrian lanik ez zegoenean

- **Erref:** BER-197/019
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:47:10. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Ama eskolara neguan joaten zen batez ere. Urtebete Gasteizen egon zen interna. Bergaran ikasi zuen Maria Zubeldiarekin.</p>

20. Gerra osteko arropak, oinetakoak

- **Erref:** BER-197/020
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:52:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Umetako arropak; oinetakoak. Arropak egiteko telak erostea oso zaila zen gerra ostean.

21. Aitajauna eta aita errementariak

- **Erref:** BER-197/021
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:52:05. **Bukatu:** 00:57:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Aitajauna eta aita errementariak ziren. Gerora aita torloju lantegi bat jarri zuen. Errementari lana. Abarketak josteko orratzak egiten zituzten, besteak beste. Gurdien gurgilendako uhelak ere egiten zituzten. Gurgilak arotzak egiten zituen. Lanaren beherakada; debekatu egin zituzten guriak kalera jaitea...

22. Zapatarikuan errementaria eta perratzailea

- **Erref:** BER-197/022
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:57:25. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Sutegia nolakoa zen. Zapatarikuan beste errementari bat zegoen; perratzaile lanak ere egiten zituen.

23. Ospitaleko eskolan ikasitakoa

- **Erref:** BER-197/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:01:25. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Hasiera batean eskolara ospitalera joan zen.</p>

Transkripzioa

- Eskolara nora joan ziran zu?

- Ni eskolara juan nitzan lelengo ospitalera, eta han ibili nitzan ospitalian. Eta gero gure kurso horretan tokau zan profesora bat ekartzia. Etorri zan, eta hasi zan ya... zeaittik lehen bakarrik parbulaixua izeten zan ospitalian ta parbulaixua in ta urten itten zeben. Baiña gure sasoian, etorri zan profesora hori eta orduan horrek jarraipen bat eman zoskun. Ta han jarraittu neban, ba, nik ez dakitt, hamahiru, hamalau urtera arte edo, hamahiru edo hamalau ez dakitt, hamabi-hamahiru urte.

- Eta zenbat urtekin sartu ziñan?

- Sei urtekin.

- Sei urtekin. Orduan ze izaten zan sei urtekin...?

- Ez, sei urtekin ez. Sei urtekin komuniua in neban, lau urtekin, bost urtekin sartuko nitzan ni, bost urtekin.

-Ta orduan ume gehixenak ya bost urterako eskolara juanda zeren edo bost urte izaten zan...?

-Baa, hortxe, hortxe juaten zan eskolara, bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com